



Lankide estimatu hori:

Zure lan-bizitzan zehar entzungo zenuen zerbait Kutxako Erretiratuen Elkarteaz (Gipuzkoa eta Donostiako Aurrezki Kutxa eta Bahitexeko enplegatu Erretiratu, Aurre-erretiratu eta Pentsiodunen **Jubikutxa** Elkarteaz).

Elkartearen helbururik garrantzitsuena bere Estatutuen 2. artikuluan aurkitzen da: *Lankidetza edo bizikidetza printzipioetan oinarrituta, bazkideen artean adiskidetasunezko harremanak sustatzea.*

Adibide gisa, hona hemen orain arte egin izan diren jardueretako batzuk:

- ✓ Bidaia luzeak. Urtero 15-16 eguneko bidaia bat egiten da munduko herrialdeak ikusi eta ezagutzeko, adibidez, Turkia, Jordania, Arabiar Emirerri Batuak, Errusia, Argentina, India eta abar.
- ✓ Astebeteko bidaiak Espainiako Erkidego Autonomoetara edo Europako herrialdeetara: Andaluzia, Gaztela Mantxa, Leon, Salamanca, Portugal, Frantzia, Herbeheretan itsas bidaia eta abar.
- ✓ Egun bateko txangoak inguruko upategi eta herrietara, bisita gidatuak egiteko.
- ✓ Mus, tute, billar... lehiaketak.
- ✓ Elkartearen Eguna bazkideen arteko bazkariarekin.
- ✓ Bazkideei argibideak bidaltzea hainbat jardueraz, BGAEn (EPSV) bilakaeraz eta, oro har, eragin diezaguketen intereseko gaiei buruz.
- ✓ Lankidetza aktiboa Kutxa Fundazioarekin eskaintzen dituzten proposamenetan.

Egungo kuota 25 € da urtean. Elkartetik gonbita egiten dizugu gurekin bat egin dezazun, eta aldi berean onena opa dizugu hastera zoazen etapa berri honetarako. Zain izango gaituzu.

Har ezazu JUBIKUTXAren agurrik beroena.

Elkartean sartu nahi baduzu, hona hemen horretarako bideak:

- a) Mezu elektronikoa bat bidali (jubikutxa@gmail.com) honako datu hauekin: izen-abizenak, helbidea, etxeko telefonoa eta mugikorra, jaiotza-data, helbide elektronikoa, kontu-zka. (20 digitu, kuota kobratzeko) eta NAN/DNI-zka.
- b) Edo beheko aldea, behar bezala beteta, zuzenean Garibai kaleko Harrera-gunean utzi edo bulegoren baten bidez JUBIKUTXAra bidali.

✂.....

Izena eta bi abizenak:

Helbidea:

Herria:

P.K.:

Tfnoak:

Kontu-zka. (20 digitu):

N.A.N.:

Jaiotza-data:

Posta elektronikoa:

Izpta.:

Oharra: *Elkartean sartzeko eskaera posta elektronikoz egiten baduzu, mesedez, gero bidali buletin hau izenpetuta JUBIKUTXAra edozein bulegoren bidez. Mila esker!*